

Emakumeen Nazioarteko Eguna Día Internacional de las Mujeres



martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna 2010

ERAKUSKETA

(martxoaren 8tik 17ra arte)

Erakusketa honen bidez omenaldia egin nahi diegu historian barrena borroka pertsonal handiak burutu dituzten eta gizarteak emakumeen eskubideak onar ditzan ahalegin handiak egin dituzten emakumeei.

Horretarako oztopo handiak gainditu behar izan dituzte erabakiak hartzen diren eremuetan sartzeko, eta, batzuetan, emakume direla ere ezkutatu behar izan dute aipatutako eremu horietan sartzeko.

Biografia hauek ezin ditugu testu-liburuetan ikasi, ezkutatu egiten dira, ez dira ikusteko moduan jartzen eta horregatik galdu egiten da gaur egungo historiari buruzko ezagutzaren zati bat.

Oraingo honetan , arlo sozio-politikoan emakumeen eskubideen alde lan egin duten 10 emakumeren biografia aukeratu dugu. Gasteizko kale batzuek emakume horien izena dute.

Gure aurrekoek egin duten ahalegin eta borroka handiaren adibide bat baino ez dira, bai banaka bai taldetan antolatuta, baina askoz gehiago daude arlo guztietan, kulturean, zientzian, ezagutzan, kirolean... berriz oroitu beharko ditugu emakume horiek.

Orain, etorri gurekin emakumeen historiatik egingo dugun ibilbidean eta ondoren zeuk jarraitu eta beste emakume batzuek egin dituzten ekarpenetara hurbildu zaitez, ekarpen horiek ezagutu eta aintzat hartu, gure historiaren parte baitira emakume horiek guztiak.

8 de marzo

Día Internacional de las Mujeres 2010

EXPOSICIÓN

(8 al 17 de marzo)

Esta exposición es un homenaje a todas aquellas mujeres que a lo largo de la historia han llevado a cabo grandes luchas personales y han volcado sus esfuerzos para que los derechos de las mujeres sean reconocidos.

Para ello han tenido que superar enormes obstáculos para acceder a los ámbitos de decisión y en algunos casos incluso han tenido que ocultar su condición de mujeres para poder formar parte de ellos.

Estas biografías no se estudian en los libros de texto, se ocultan, se invisibilizan y con ello se pierde parte del conocimiento verdadero sobre la historia contemporánea.

En esta ocasión hemos elegido la biografía de 10 mujeres que realizaron su trabajo a favor de los derechos de las mujeres en el ámbito socio-político y que dan nombre a algunas de las calles de Vitoria-Gasteiz.

Éstas constituyen tan sólo un ejemplo de los esfuerzos y grandes luchas llevadas a cabo por nuestras antecesoras, tanto individualmente como de forma organizada, pero existen muchas más, en todos los campos, en la cultura, en la ciencia, en el conocimiento, en el deporte... mujeres cuya memoria debemos recuperar.

Ahora, acompáñanos en este paseo a través de la historia de las mujeres y después continúa tu propio recorrido acercándote, conociendo y reconociendo las aportaciones de tantas otras mujeres que forman parte de nuestra propia historia.

Clara Campoamor

(Madril, 1888 – Suitza, 1972)



«Lan egin dut ondokoa lortzeko:
gizonek emakumeak leku guztietan
topa ditzaten eta ez soilik haien
bila joaten diren lekuetan»

«He trabajado para que
en este país los hombres
encuentren a las mujeres en
todas partes y no sólo donde
ellos vayan a buscarlas»

Espainiako estatuan mugimendu feminista sustatu zuen eta sufragista izan zen. Errepublikako Parlamentuko lehenengo emakume diputatuetakoa bat izan zen. Hasieran jostuna izan zen 1909. urtera arte; ondoren lanpostua lortu zuen Telegrafo-laguntzaileen kidegoan. 1914. urtean irakaskuntzan lan egin zuen eta 1924an Zuzenbidean lizentziatu zen. Une horretan hasi zuen ibilbide politikoan, eta batez ere, emakumeei onartzen ez zizkieten eskubideen alde egin zuen.

Clara Campoamorrek Parlamentuan emakumeek botoa emateko eskubidearen alde egin zuen; ahalegin handia egin behar izan zuen horretarako eta alderdiko kideen aurka ere jarri behar izan zen. Azkenean, 1931ko Konstituzioak Estatuan lehendabiziko aldiz onartu zuen emakumeek botoa emateko eskubidea. Gainera Clara Campoamor Estatuan lehen dibortzioaren legearen aitzindaria izan zen.

1936ko kolpe militarren ostean, Suitzara erbesteratu zen eta han idazten jarraitu zuen. 1950eko hamarkadan saiatu zen Espainiara itzultzen baina Francoren erregimenak kondenatu nahi zuen masoiz-ideologia dela-eta. Beraz Suitzara itzuli eta han gelditu zen hil arte.

Impulsora del movimiento feminista y sufragista en el Estado español, es una de las primeras diputadas en el Parlamento Republicano. Comienza trabajando como modista hasta que en 1909 obtiene plaza en el cuerpo auxiliar de Telégrafos. En 1914 trabaja como profesora y en 1924 se licencia en Derecho. Entonces comienza su carrera política que dedica, sobre todo, a la defensa de los derechos no reconocidos de las mujeres.

Clara Campoamor defiende en el Parlamento el derecho a voto de las mujeres hecho que le supuso un duro esfuerzo e incluso enfrentamientos con sus compañeros de partido. Por fin, la Constitución de 1931 reconoce por primera vez en la historia del Estado, el derecho a voto de las mujeres. Además, Clara Campoamor también es precursora de la primera ley del divorcio en el Estado.


Tras el golpe militar de 1936, Clara Campoamor se exilia en Suiza desde donde continua escribiendo. En la década de 1950 intenta volver a España, pero el Régimen de Franco la quiere condenar por su ideología masona por lo que vuelve a Suiza donde permanece hasta su muerte.

Concepción Arenal

(Ferrol, 1820 – Vigo, 1893)

«Ongiarekin lortzen
diren indarrak
ez dira batzen,
biderkatu egiten
dira»

«Las fuerzas que se
asocian para el bien
no se suman,
se multiplican»



Aita hil zitzaionean, Concepción Arenal Madrilerara joan zen gainontzeko senideekin eta han ikasten jarraitu zuen. Madrilen borroka egin zuen garai horretako erregimen patriarkalaren aurka, entzule moduan Unibertsitate Zentraleko Zuzenbideko Fakultatean parte hartu zuenean. Emakumeek ezin zuten hezkuntza eta politikaren eremuan parte hartu; hori dela-eta, bere itxura ezkutatu behar izan zuen eta gizon arropak jantzi zituen. Gizon jantzita joaten zen bai unibertsitatera, bai garai horretako politika eta literatura arloko zenbait hizketalditara; horrela prestatu zen idazle moduan eta eremu sozial eta juridikoan espezializatu zen.

Senarra hil zitzaionean, 1859an, Kantabriara joan zen eta hango Zientzia Moral eta Politikoen Akademiak saria eman zion txiroen alde eta bazterketaren aurka egindako lan teoriko eta praktikoarengatik. Historian sari hau jaso duen lehen emakumea da.

Bere obretan eta praktika sozialean, gizarte-eremu guztietan emakumeek izan behar duten berdintasunaren alde egin zuen, eta baita emakumeen bazterketaren aurka ere.

Tras la muerte de su padre, Concepción Arenal se traslada a Madrid con el resto de su familia donde continua estudiando. Allí, mantiene una lucha personal contra el régimen patriarcal de la época al participar como oyente en la Facultad de Derecho de la Universidad Central. La participación de las mujeres en el ámbito educativo y político estaba prohibida, por lo que Concepción se ve obligada a enmascarar su identidad vistiéndose con ropa de hombre. Así vestida acude tanto a la Universidad como a diversas tertulias políticas y literarias de la época donde se forma como escritora especializándose en el ámbito social y jurídico.

Tras la muerte de su marido, en 1859 se traslada a Cantabria donde la Academia de Ciencias Morales y Políticas la premia por su labor teórica y práctica a favor de las personas pobres y en contra de la marginación. Es la primera mujer en la historia que recibe este premio.

En sus obras y su práctica social reivindica la igualdad en todas las esferas sociales para la mujer y se rebela contra la marginación de las mujeres.

Dolores Ibarruri, La Pasionaria

(Gallarta, Bizkaia, 1895 – Madril, 1989)



«Bete egin dut bizitza honetan nuen egitekoa.
Ezin gehiago eskatu. Emakumearen helburu,
irtenbide, asmo bakarra ezkontza zen, bizitza
triste, gris, penagarriarekin jarraitzea eta gure
amen esklabo izatea; egiteko bakarra seme-
alabez erditu eta haztea zen»

Buru politikoa izan zen Espainiako Bigarren Errepublikan eta Guda Zibilean. Marxismoarekin izandako lehen harremanen ondorioz, zalantzan jarri zuen jasotako hezkuntza tradizionalista eta katolikoa.

Espainiako Alderdi Komunistan (PCE) langileen askatasunaren alde egiteaz gain, emakumeen eskubideen alde ere egin zuen; ahaleginak egin zituen ondokoa erakusteko: emakumeak, edozein egoeratan izanda ere, ez direla aske haien etorkizuna aukeratzeko. Beste emakume batzuekin batera Faxismoaren aurkako Emakumeen Batasuna antolatu zuen. Talde horren buru izen zen 1933an.

II. Errepublikako Diputatuen Kongresuan Alderdi Komunistako diputatu (Asturias ordezkatzeko) eta Errepublikako Gorteetako lehendakariorde izendatu zuten 1937an.

Dirigente política en la Segunda República Española y en la Guerra Civil. Sus primeros acercamientos al marxismo le hacen cuestionarse su educación tradicionalista y católica.

Además de luchar por la liberación de la clase obrera dentro del Partido Comunista de España (PCE), lucha por los derechos de las mujeres; se esfuerza por demostrar que, sean de la condición que sean, las mujeres son seres libres para elegir su destino. Junto a otras organiza la Unión de Mujeres Antifascistas, agrupación que también preside en 1933.

Es nombrada diputada del Partido Comunista por Asturias en el Congreso de los Diputados de la II República y vicepresidenta de las Cortes Republicanas, en 1937.

«Mi misión en la vida estaba cumplida. No podía ni debía aspirar a más. El fin de la mujer, la única salida, su única aspiración, era el matrimonio, y la continuación de la vida triste, gris, penosa, esclava de nuestras madres, sin más ocupación que parir y criar»

Margarita Nelken

(Madril, 1894 – Mexiko, 1968)



«Miseria konpontzeko modu zuzenetako eta erradikaletako bat lana goraiatzea eta duin bihurtzea da. Laguntzak nola banatu erabakitzea baino garrantzitsuagoa da lana ondo antolatzea, laguntza horien beharrik ez izateko»

Aktibista politikoa, idazlea eta arte-kritikaria. Sozialisten zerrendako diputatu zen Errepublikako Parlamentuan; elkarren segidako hiru hauteskundetan aukeratu zuten diputatu izateko. Oro har, proletarioen eta emakumeen eskubideak lortzearen aldeko diskurtsoa egiten du. Testuinguru horretan, Madrilen emakumeen lehen greba zuzendu zuen, “Zigarro-egileen Greba” izenarekin ezaguna da. 1936an Faxismoaren aurkako Emakumeen Batasuna antolatu zuen, gudaren eta faxismoaren aurka emakumeek osatutako taldea. Partehartze soziopolitikoaz gain, hainbat liburu eta artikulua idatzi zituen politikari, arteari eta emakumeen egoerari buruz.

Guda Zibilaren ostean, Parisera, Moskura eta azkenean Mexikora erbesteratu zen. Herrialde horretan finkatu zen behin betiko eta politika, literatura eta kazetaritza arloko jardueretan jarraitu zuen. Gainera, Mexikoko arteko literatura-kritikari garrantzitsuenetakoa izan zen hil arte.

Activista política, escritora y crítica de arte. Es diputada de las listas socialistas en el Parlamento Republicano, elegida de manera consecutiva durante tres elecciones. Dirige su discurso a la consecución de los derechos del proletariado y las mujeres, en general. En este contexto, dirige la primera huelga de mujeres en Madrid conocida como ‘La Huelga de las Cigarreras’. En 1936 organiza la Unión de Mujeres Antifascistas, organización de mujeres contra la guerra y el fascismo. Además de su participación sociopolítica, también produce numerosos libros y artículos sobre política, arte y la situación de las mujeres.

Tras la Guerra Civil comienza su exilio en París, Moscú y finalmente, México. Allí se instala definitivamente y sigue desarrollando sus actividades políticas, literarias y periodísticas. Además, es una de las críticas literarias de arte más influyentes de México hasta su muerte.

«Una de las maneras más directas y más radicales de remediar la miseria, es elevar y dignificar el trabajo. Más importante que el organizar distribuciones de socorros es organizar el trabajo de manera que estos socorros sean innecesarios»

María de Maeztu Whitney

(Vitoria-Gasteiz, 1881- Buenos Aires, 1948)



«Feminismoak, hasteko eta behin, honako esanahi hau du nire ustez: alde batetik, emakumeak duen eskubidea kultur lana eskatzeko; eta, beste alde batetik, gizarteak duen beharra kultur lan hori emateko»

Hezkuntza berritu zuen eta horretarako zenbait metodo berri sartu zituen, besteak beste, eskolak geletatik kanpo ematea eta hezkuntza laikoaren aldeko apustua egitea. 1915ean Madrilgo Nazioarteko Egoitza sortu zuen unibertsitateko emakume ikasleentzat eta irakasleentzat. Hori pausu garrantzitsua izan zen Espainiako kultura eremuan emakumeak ikusgarri bihurtzeko. Emakumeentzako lehen kluba sortu zuen, Lyceum Club izenekoa. Helburua emakumeen talde-izaera sustatzea zen.

Bere teoria pedagogikoak eta feministak defendatu zituen Europan eta Amerikan eta mundu luze-zabaleko zenbait unibertsitatetan Honoris Causa Doktore izendatu zuten.

Reforma la enseñanza con nuevos métodos que incluían, entre otros, dar clases al aire libre y la apuesta por una educación laica. En 1915 funda una Residencia Internacional en Madrid, para universitarias y maestras, que supone un gran avance para la visibilización de las mujeres en el ámbito de la cultura española. Funda el primer club para mujeres, el Lyceum Club, con el objetivo de fomentar espíritu colectivo entre ellas.

Difunde sus teorías pedagógicas y feministas por Europa y por América y es nombrada Doctora Honoris Causa por distintas universidades del mundo.

«Esto es lo que para mí significa, en primer término, el feminismo: es, por un lado, el derecho que la mujer tiene a la demanda de trabajo cultural y, por otro, el deber en que la sociedad se halla de otorgárselo»

María Martina Ibaibarriaga

(1788, Berriz, Bizkaia, - 1849, Oña, Burgos)



María Martina Ibaibarriagaren familiak botika bat zuen Bilboko alde zaharrean. 1808ko abuztuan, Napoleonen tropek hiri horri eraso zioten eta botikan bertan hil zituzten Martinaren ama, aita eta neba.

Erantzun moduan, heroina hau aldatzen joango da, gizontzat aurkeztu zuen bere burua eta Napoleonen aurkako tropetan sartu zen. Manuel Martínez izena hartu zuen, zenbait ekintza militarretan parte hartu zuen eta azkar konturatu ziren oso ausarta zela eta agintzeko gaitasun handia zuela. 1813an, Gasteizko Guduan, ejertzito frantsesaren aurkako armada baten buru izan zen eta Wellington jeneral aliatuari deigarria gertatu zitzaion.

Barbastron, Zaragoza hiria setiatu nahi zutenean, “Martínez Koronela” zauritu zuten eta herriko botikaria emakumea zela konturatu zen.

La familia de María Martina Ibaibarriaga regenta una botica en el casco viejo de Bilbao. En agosto de 1808, las tropas napoleónicas asaltan esa villa y asesinan en la misma farmacia a la madre, al padre y al hermano de Martina.

Como respuesta, comienza la transformación de esta heroína, que se hace pasar por un hombre y se alista en las tropas para luchar contra el bando napoleónico. Con el nombre de Manuel Martínez, toma parte en diversas acciones militares y su valentía y grandes dotes de mando son rápidamente reconocidas. En junio de 1813, en la batalla de Vitoria, comanda una carga contra el ejército francés que llama la atención del general aliado Wellington.

En Barbastro, durante el cerco de la ciudad de Zaragoza, “el Coronel Martínez” resulta herida y, entonces, el boticario del pueblo descubre que es una mujer.

Mariana Pineda

(Granada, 1804 – Granada, 1831)

«Ez da inoiz nire ezpainetatik
aterako zuhurtziarik gabeko
hitzik beste norbaiti estualdia
pasarazteko»

«Zalantzarik gabe nahiago
dut heriotza loriatsu izatea,
beste persona bati salatzearen
ondorioz desohorea izatea
baino»



Liberalen alde eta absolutismoaren aurka egin zuenez, jendaurrean garrotez hiltzeko heriotza-zigorra jaso zuen. Hilketan horren bidez, liberalak zigortzeaz gain, XIX. mendeko Espainia asaldatu horretako bizitza politiko eta sozialean emakumeek parte hartu izana ere zigortu nahi zuten. Liberalentzat martiri bihurtu zen eta baita askatasun gabezien aurkako borrokako sinbolo ere.

Su compromiso con la causa liberal y lucha contra el absolutismo la llevaron a ser ajusticiada públicamente mediante garrote vil. Su ejecución no sólo pretendía castigar a los liberales, sino castigar también la participación de la mujer en la vida política y social de la convulsa España del siglo XIX. Se convirtió en una mártir para los liberales y en un símbolo de la lucha contra la falta de libertades.

«Nunca una palabra indiscreta acabará de mis labios para comprometer a nadie»

«Prefiero sin vacilar una muerte gloriosa a cubrirme de oprobio delatando a persona viviente...»

Rigoberta Menchú

Guatemala, 1959

«Irudimena duen emakume batek, familia baten bizitza eta gizarte baten bizitza proiektatzeaz gain, milurtekoaren etorkizuna ere proiektatu dezake»



Indigenen eta nekazarien eskubideak aldarrikatu zituen justizia eskatzeko eta bakea zein giza eskubideen errespetua lortzeko, betiere aniztasun etniko, politiko eta kulturala oinarri hartuta. Jarrera hori dela-eta, 1981ean erbesteratu zen.

Guatemala desmilitarizatzearen aldeko zenbait taldetan parte hartu zuen.

1988an kartzelan sartu zuten Elkarrizketa Nazionalean parte hartzeagatik.

1992an Bakearen Nobel Saria jaso zuen egindako lanarengatik.

2007an Guatemalako presidente izateko aurkeztu zuen bere burua, kargu hori nahi zuen lehen emakume indigena izan zen.

Ha reivindicado los derechos de las personas indígenas y campesinas para reclamar justicia y conseguir la paz y el respeto por los derechos humanos, basándose en la pluralidad étnica, política y cultural. Esta actitud la llevó al exilio en 1981.

Ha participado en organizaciones para luchar a favor de la desmilitarización de Guatemala.

En 1988 fue encarcelada por participar en el Diálogo Nacional.

En el año 1992 recibió el Premio Nobel de la Paz en reconocimiento a toda su labor.

En 2007 se presenta a la presidencia de Guatemala, convirtiéndose en la primera mujer indígena que aspiraba a este cargo.

«Una mujer con imaginación es una mujer que no sólo sabe proyectar la vida de una familia, la de una sociedad, sino también el futuro de un milenio»

Simone de Beauvoir

(Paris, 1908 – 1986)



«Ez gara emakume jaino,
emakume bihurtzen gara.

Jatorri biologiko, fisiko
edo ekonomikoak ez du
gizartean dugun gizaki
emearen irudia definitzen;
zibilizazioak berak eraikitzen
du arraren eta irendutako
bitarteko produktu hori eta
femeninotzat kalifikatu du»

Filosofo existenzialista, nobelagilea eta emakumeen eskubideen aldarrikapenaren irudi garrantzitsua zen.

1945ean Garai Modernoak aldizkaria sortu zuen beste batzuekin batera eta garai horretako pentsamendu frantsesaren eredu politiko eta kultural bihurtu zen.

Bigarren sexua liburuan (1949), Simone de Beauvoirrek emakumeen gizarte-egoeraren historia eta gizonezkoen zapalketaren ezaugarriak aztertu zituen. Emakumeek, etxeko eremuan sartuta daudenez eta aukera bakarra dutenez, etxea eta familia zaintzekoa alegia, gizarteloturak galtzen dituztela, eta, aldi berean, aske izateko aukera galtzen dutela esan zuen. Gainera, uste zuen ezberdinak izan behar direla eta ezingo direla paraleloki burutu emakumeen burujabetasunaren aldeko borroka eta klase-borroka.

Filósofa existencialista, novelista y figura importante en la reivindicación de los derechos de las mujeres.

En 1945, cofunda la revista Tiempos Modernos y se convierte en un referente político y cultural del pensamiento francés de la época.

En el libro *El segundo sexo* (1949), Simone de Beauvoir analiza la historia de la condición social de las mujeres y las distintas características de la opresión masculina. Sostiene que las mujeres, al estar recluidas en el espacio doméstico y dedicadas como única opción al cuidado de la casa y de la familia, pierden los vínculos sociales y, al mismo tiempo, la posibilidad de ser libres. Mantiene que la lucha para la emancipación de las mujeres tiene que ser distinta y paralela a la lucha de clases.

«No se nace mujer, llega una a serlo. Ningún destino biológico, físico o económico define la figura que reviste en el seno de la sociedad la hembra humana; la civilización es quien elabora ese producto intermedio entre el macho y el castrado al que se califica como femenino»

Victoria Kent

(Málaga, 1892- Nueva York, 1987)



«Beti izan dut justiziarekiko gogo bizia
eta gizarte-gaiekiko asaldura eta jarduera
bizia. Senezkoa da»

Zuzenbidean Doktoretza zuen eta Madrilgo lehen emakume espainiar abokatua izan zen, Clara Campoamorrekin batera. Gainera gerra-kontseilu baten aurrean parte hartu zuen munduko lehen emakumea zen eta defendatuaren absoluzioa lortu zuen.

Alderdi Erradikal Sozialistakoa izan zen eta Gorte Konstituziogileetako diputatu hautatu zuten 1931n.

Irmo uste zuen atxilotutako pertsonak birgaitu eta gizarteratu ahal direla eta hori lortzeko kartelek izan beharko lituzketen funtzioetan ere sinesten zuen.

Doctorada en Derecho fue la primera mujer española abogada de Madrid, junto con Clara Campoamor. Además fue la primera mujer en el mundo en intervenir ante un consejo de guerra, consiguiendo la absolución de su defendido.

Perteneció al Partido Radical Socialista siendo elegida diputada de las Cortes Constituyentes en 1931.

Creía firmemente en la rehabilitación y reinserción de las personas presas y en el papel rehabilitador que las prisiones debían cumplir para lograrlas.

«Siempre he tenido un gran fervor por
la justicia y una gran rebeldía y actividad
por los temas sociales. Es algo instintivo»

martxoak 8 de marzo
Emakumeen nazioarteko eguna
Día internacional de las mujeres

Elkartek antolatutako ekintzak
Actividades
organizadas por asociaciones



“Berdintasuna orekan” Kontakizun Laburren VI. Literatur lehiaketaren sari banaketa.

VI entrega de premios del concurso literario de relato corto "La igualdad en equilibrio"

Eguna/Día: Martxoak 11 de marzo (osteguna/jueves)

Ordua/Hora: 19:30

Tokia/Lugar: Martin Salinas gela/Sala Martín de Salinas
(Goiuriko Jauregia/Palacio Villasuso)

Antolatzailea/Organiza:

Jalgi Surgir, Emakumeen Elkarte/Asociación de Mujeres Jalgi Surgir

Hitzaldia/Conferencia

“Feminismoa krisialdiaren aurrean”

"Feminismo ante la crisis"

Eguna/Día: Martxoak 16 de marzo (asteartea/martes)

Ordua/Hora: 19:30

Tokia/Lugar: Ignacio Aldecoa Kultur Etxean/Casa de Cultura

Hizlaria/Ponente:

María Pazos.

Matematikaria eta estatistikan aditua.

Ogasun Ministerioko Zerga Ikerketarako Institutuan lan egiten du.

Matemática y experta en estadística. Actualmente trabaja en el Instituto de Estudios Fiscales del Ministerio de Hacienda.

Antolatzailea/Organiza: Forum Feminista Maria de Maeztu

Sala HellDorado aretoa,
Martxoak 6 de marzo (larunbata/sábado) 22:00

Kontzertua/Concierto

“Queens of noise”

Las culebras

Las Gildas

Turboneskak

Dj's: Las chicas de Electra eta/y Chulina

Antolatzailea/Organiza: Asociación HellDorado elkarte
Informazioa gehiago/+ información: www.helldorado.net



Antzerkia/Teatro

“Geldierazi dezagun malaria orain” “Paremos la malaria ahora”

Egunak/Días:

Martxoak 27 de marzo (larunbata/sábado) 20:00 (euskaraz)

Martxoak 28 de marzo (igandea/domingo) 20:00 (castellano)

Tokia/Lugar: Teatro Federico García Lorca Antzokia.
Centro Cívico Lakua gizarte etxea.

Antolatzailea/Organiza:

- Medicusmundi
- Abstractoesfera Elkarte Kulturala/Asociación Cultural de teatro Abstractoesfera
- Djelia Tamaa Musoo Afrikar Emakumeen Elkartea/
Asociación de mujeres Africanas Djelia Tamaa Musoo

Laguntzailea/Colabora: Vitoria-Gasteizko Udaletxeko Garapenerako Zerbitzua/Servicio de Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Gonbidapenak jaso daitezke/las invitaciones podrán recogerse en

- *Denda/tienda de Medicusmundi, Pío XII, 18 (945065447)*
- *Asociación cultural de teatro Abstractoesfera Elkarte Kulturala*
- *Djelia Tamaa Musoo Afrikar Emakumeen Elkartea. Asociación de mujeres Africanas Djelia Tamaa Musoo.*

Erakusketa/Exposición

“Komiki Emakumeak, umorezko marrazkigile” “Mujeres de Tebeo. Autoras de humor gráfico”

Eguna/Día: Martxoaren 1etik 15era/1 al 15 de marzo

Tokia/Lugar: Judimendiko gizarte-etxeko erakusteka-gunean/
Espacio expositivo de Centro Cívico Judimendi.

Antolatzailea/Organiza: Énfasis

